

BI SEXUA LITATEA

Ez da fase bat,
geratzeko gaude hemen



AURKIBIDEA

Ez da fase bat, geratzeko gaude hemen	5
Historia	12
Esperientzia bisexualak	15
Manifestu bisexuala	18
Material interesgarriak	20

BI SEXUA LITATEA

Ez da fase bat,
geratzeko gaude hemen

EZ DA FASE BAT, GERATZEKO GAUDE HEMEN

Zugan pentsatuta idatzi dut testu hau.

Zuretzat, inguruan jende bisexualik ez duzun horrentzat, eta baita zuretzat ere, LGBTBI pertsonen bizipenak ezagutzen dituzun horrentzat.

Entzuteko prest dagoenarentzat idazten dut, gai honek guztiokin baitu zerikusia. Aniztasun sexualari eta genero-aniztasunari lotutako esperientziez hitz egitea jendarte osoa eta gure kultur sistema osoa interpelatzea da. Zisheteropatriarkatuak¹ guzti-guztiongan du eragina, baita beren burua LGBTBI kolektiboan kokatzen ez dutenengan ere. Adibidez, pentsatu al duzu inoiz zergatik den “normala” –normatiboa– heterosexuala eta monosexuala izatea eta harreman monogamoak izatea? Pentsatu al duzu inoiz zer ondorio eragiten dituen normatibitate horrek pertsonengan, nahiz eta hura onartu?

Fanzine honek zutaz hitz egiten du, eta ez da xeblearentzako testu bat, nahiz eta hori ere baden. Zorrotz baina gertutasunez hausnartu dezagun idatzi dut; uler dezagun LGBTBI pertsonen bizitzaz ari garenean zutaz ere ari garela, zu ere generoaren eta desiraren arau sozialek zeharkatzen zaituzten neurrian.

Nire bizi-esperientzian zehar aurkitu dudana partekatu nahi dut zurekin, konplize bihurtu nahi zaitut, eta bizimodu bisexuala argitu eta aldarrikatu nahi dut.

Goza dezazula!



¹ Zisgenero eta heteropatriarkatu izenen akronimo konposatua. Zisgenero esaten diegu beren genero-identitatea jaiotzean esleitu zioten rolaekin bat datorkien pertsonen erreferentzia egiteko. Zisgeneroren kontrakoari transgenero esaten zaio. Heteropatriarkatu esaten dugunean heterosexualitatea jokabidearen arau erregulatzailerik den antolaketa sozial, politiko eta kulturalari egin nahi diogu erreferentzia, zeinak desberdinkeriak edo indarkeria formak eragiten baititu hura harrokeriaz edo handikeriaz erabiltzen denean.

Bisexual hitzak gure sexu-generoko eta beste sexu-generoetako pertsonekin erakarpen erromantiko edo sexuala sentitzen dugunoi egiten digu erreferentzia. Gure inguruan bisexualitatea lesbianismoa edo homosexualitatea bezain ohikoa bada ere, jendartean ezkutatu egiten da, ez da aintzakotzat hartzen.

Hitzak hainbat definizio izan ditu historian zehar. Hasieran emakume eta gizonenganako erakarpena izendatzeko erabiltzen zen, baina ageriko binarismo horrek ez zuen kontuan hartzen errealitatean zegoen aniztasuna. Hori dela eta, 90eko hamarkadan pansexual hitza erabiltzen hasi ziren edozein sexu edo genero-identitaterenganako erakarpen erromantiko edo sexuala izendatzeko. Hala ere, bisexualen beraien hausnarketen harira, pixkanaka aldatu egin da bisexualitate terminoa, eta hala, ezabatu egin du binarismoarekin lotzen zuen ikuspegi hori. Beraz, gaur egun sinonimotzat jo ditzakegu bisexual eta pansexual hitzak.



Nik bisexualtzat dut nire burua.

Izen hori erabiltzea gustatzen zait, bi komunitateak urteetan zehar izan duen ibilbide politikoa eta bere borroka islatzen dituelakoan.

Robyn Ochs aktibista amerikarrak 90eko hamarkadan eman zidan definizioa gustatzen zait gehien. Ezagutzen al duzu? Bisexualitatea “sexu edo genero bateko baino gehiagoko jendeaganako erakarpena –erromantikoa edo sexuala– sentitzeko potentziala da, ez ezinbestean garai berean, forma berean eta ezta maila berean ere”.

Gustuko dut, definizioan bertan jakitera ematen duelako bisexualitatea bizitzeko modu ugari daudela, eta lotura edo erakarpen horiek ez direla sexualak bakarrik; horrek pentsamendua irekitzen eta harremanak arlo sexualaz harago irudikatzeko ahalmena zabaltzen laguntzen du. Desirak eta erakarpenak etengabe aldatzen dira, bitzta bera bezalaxe. Izan ere, baliteke nik inorekin harremanik ez eduki izana eta hala ere bisexuala naizela uste izatea. Era berean, nire sexu-generoko pertsona batekin harreman bat hasten badut, ez naiz automatikoki lesbiana edo gay bilakatzen; bisexual izaten jarraituko dut.

Ochsek bisexualitateari ematen dion definizioa oso zabala da, bi esperientzia bera ere oso zabala delako, noski. Gainera, bisexual izatea ez dago erakarpen sexualarekin bakarrik lotuta. Hala nola, egiturazko indarkeria eta mugimendu baten memoria historikoaren parte izatea ere badakar. Bi gauza horiengatik da bisexualitatea disidente kategorio osoa. Bisexualitatea ez da “buruarinak” izatearen ondorioa. Bisexualitatea disidentzia sexuala da.

Ni ez nago erdi heterosexual eta beste erdi homosexual batez osatuta; ni bisexuala naiz erabat. Eta hori zalantzan jartzen didatenak jarrera bifobikoak izaten ari dira.

Bifobia esaten zaio bisexualok bisexual izate hutsagatik jasaten diogun indarkeriari. Hamaika dira bifobiazko ekintzak; hedatuena hura ikusezin bilakatzea da. Egiari zor, ez da asko hitz egiten gutaz². Horren adierazgarri da ikusten ditugun karteletan “transfobia, homofobia eta lesbofobia ekintzen aurka” jartzea, eta ezer ez esatea bifobia-erasoez. Eta egon badaude.

Zenbait bifobia-indarkeria mota daude hemen. Ziurrenik ezagutuko dituzu batzuk...

Biziotsuak eta promiskuoak garela diote. Eta hori zergatik esaten dute bisexual bezalakoak? Beharbada bai, beharbada ez. Hori norberak erabakitzen du, ez da berezko zerbait. Aske naiz hori erabakitzeko. Gainera, biziotsu eta promiskuo izatea ere ez da ezer txarra; halakoa izan nahi duena, izan dadila!

Esaten dute ez dela posible aldi berean bi generoenganako erakarpena sentitzea; bisexualitatea ez dela existitzen. Hori monosexismoa³ arau orokorra delako gertatzen da. Baieztapen hori ez da zehatza eta ez die mesederik egiten egiaz hala direnei.

Desleialagoak garela esaten dute. Pentsatu al duzu askotan harremana duen pertsonaia bisexualak “kontrako” generoko beste bikotekide batekin amaitzen duela? Ez da kasualitate kontua; fikziozko eszena eta istorioetan islatzen den ustea da. Hala ere, uste oker horrek bifobiko batzuek “Ui, nik bisexualengandik ziztu bizian egiten dut alde” gisako iruzkinak esatea eragiten du.

Nahastuta gaudela diote, bisexualitatea fase bat besterik ez dela, esperimentatzeko une bat.

Esaten dute joan egingo zaigula edo lesbianismora edo homosexualitaterako ataria izango dela. “Bai, bai, bisexuala; nik ere esan nuen hori bere garaian...” Halako esaldiak entzutea iraingarria da. Sexualitatea jaria korra izan daiteke eta aldatu egin daiteke denboraren joanarekin, baina bisexualak nahasmen fase batean dauden jendetzat hartzea bifobia da, eta bisexualen agentzia-

² Uneoro genero guztiei egiten zaie erreferentzia, izan emakumea, gizona edo ez-binarioa.

³ Monosexismoa guztiok genero bakarrarenganako erakarpena sentitzen dugula aurreikusten edo inposatzen duen egitura soziala da. Monosexismoaren eraginez, bisexualiterik existitzen ez delako ustea dago. Fase bat edo nahasmendu-egoera bat dela, eta ondoren homosexualitatea agertuko dela.

gaitasuna kentzen digu». Bisexuala? Horixe esan nuen nik oraindik gay nintzela onartu nahi ez nuenean».

Irailaren 23a Bisexualen Nazioarteko Eguna da. Elisa Coll aktibistari aditu nion La Psicowomanekin⁴, egin zuen bideo batean bisexualok indarkeria sexuala lesbianek, gayek edo heterosexualek baino maila handiagoan jasaten dugula. Depresiorako joera handiagoa ere badugu, bifobia heteroarauan ez ezik, LGTBI kolektiboan ere agertzen denez gero. Ez dituzte gure beharrak aintzat hartzen, eta behar dugu hori hitzez adierazte hutsa, batzuetan LGTBIren aurkako traizio gisa interpretatzen da.

Marsha P. Johnson, Sylvia Rivera edo Brenda Howard –"Harrotasunaren ama"– bisexualak ziren. Hemen eta orain, asko gara oro har LGTBI borrokan jarraitzen dugunok. Gainera, azken aldian kolektiboak gero eta gehiago zentratzen dira bisexualen aldarrikapenetan.

"Orduan, heteroa zara berriro ere?" Gurekin harremana duten pertsonen arabera definitzen gaituzte, baina egiaz, ez du esan nahi une batean hetero eta gero lesbiana edo gay garenik, baizik eta uneoro bisexualak garela. Logika honek ez du logikarik, ze, ez banaiz inorekin irteten, zer naiz? Asexuala? Ba ez! Bisexuala naiz guztiz, uneoro. Ezin dugu gure burua memento batzuetan pribilegioak dituen (harreman heterosexualek ditugunean) eta beste memento batzuetan diskriminazioa jasaten duen beste kategoriatan batekin definitu (harreman homosexualak ditugunean).

Etiketak kaiolak direla esaten dute: "Etiketak, zertarako? Izan gaitezen libre". Erne egon kategoriak demonizatzen dituen diskurtso horrekin; etiketa batzuk oso indartzaileak izan daitezke, eta gainera, izaera komunitarioa dute. Bestalde, etiketarik ez badago, ikusezin bihurtzen da kolektibo bakoitzak jasaten duen zapalkuntza espezifiko. Nik nerabezaroan bisexualitatea izan bazela jakin izango banu, ez nituzkeen hainbeste urte igaroko

"armairuan" sartuta, zer gertatzen zitzaidala jakin gabe eta bisexualitatearen komunitatean babes-sarerik izan gabe. Bisexual kategoriatan estigmatizatuta dagoela uste baduzu, esanahi berriz betetzera gonbidatzen zaitut, zure hiztegitik ezabatu beharrean.

Bifobia jasaten dugu eta ez ditugu heterosexualek pribilegioak. Bisexualitatea heteroaraua gerturatzea ere bifobikoa da. Gure sexualitatea gure bikotearen generoaren arabera ez dela aldatu justifikatu eta azaldu beharra diskriminatzailea da.

Ikusezintasun orokor horretan, gizon bisexualak ikusgarritasun txikiagoa dute emakume bisexualak baino, kultur sistemek emakumeen sexualitatea gizonak asebetze behar dituen objektutzat hartzen dira, plazer-subjektutzat beharrean. Ez al dizu ezer esaten hainbeste hirukote *mainstream* pornografia agertzeak? Guri fetitxe gisa hirukoteak egitea eskaintzea ere jarrera bifobikoa da. Pertsona ez-binarioak dira ikusezinenak. Adibide grafiko bat ematearren, zinemako eta telebistako produkzio handietan 2019an ez zen pertsonaia ez-binarioak agertu⁵.

Bisexualon komunitatean aniztasun handia dago: gizonak, emakumeak, pertsona ez-binarioak, zisak, transak, aniztasun funtzionala dutenak, aberatsak, pobreak, arrazializatuak, zuriak... Guztiok bihurtzen gaituzte ikusezin bisexual izateagatik. Hala ere, kontuan hartu behar da klase soziala, egoera administratiboa, adina, kultur testuingurua edo desgaitasunen bat izatea diskriminazioaren egiturazko ardatzak direla eta interseksioan daudela bisexualitatearekin.

Ez dago gai honetan argitaratu den estatistika asko, baina beste testuinguru geografiko batzuetatik jaso ditugun datuek erakusten dute LGTBI biztanleriaren erdia baino gehiago garela bisexualak⁶. Gure historia LGTBI osatzen duten gainerako identitateena bezain garrantzitsua da.

Bisexual asko ez dira oraindik armairutik atera; ez dute beren burua agertzen izan

ditzaketen errepresaliengatik. Nire burua bisexual gisa agertzen hasi nintzenean, bat-batean nire inguru hurbileko askok ere esan zuten bisexualak zirela, beren inguruan inork ez baldin bazekien ere. Horietako askok hetero izendapena jarri zioten beren buruari, eta beste batzuek lesbiana edo gay. Bisexualitatea maiz bizitza bikoitzarekin ematen da, eta horrek eragin psikologiko negatiboa du armairu horretan bizi direnentzat.

Laguntza handia eman zidaten gaiaren inguruan irakurri nituen artikulu eta liburuek, eta baita aktibisten kolektiboek ere. Azkenean, heterosexualek edo homosexualitatearen irudipena ez sortzeko, orain pertsonen arteko harremanak izendatzeko emakume-emakume, gizon-emakume, gizon-gizon harremana edo binomio horietatik kanpoko beste genero-aukera batzuekin izendatzen ditut. Horrela, ez zait ahazten beste aukera batzuk badaudela hetero edo homo harremanetatik harago. Gure harremanek ikusgarritasuna eta izena izan dezaten alternatibak sortzen saiatzen naiz.

⁴ Bideoa sartzeko Psicowoman kanaleko IGTVn Instagramen, edo bestela esteka honetan: <https://cutt.ly/fgFvXkb>

⁵ Glaad Media Institute (2020): "Studio Responsibility Index" <https://cutt.ly/Qg3syYl>

⁶ Gates, Gary J. (2011): "How Many People are Lesbian, Gay, Bisexual and Transgender?" The Williams Institute. <https://cutt.ly/PgFvW06>



Mugimendu bisexualaren bandera

HISTORIA

XIX. mendean erabili zen lehenengoz bisexual hitza. Oraindik sortu gabeak ziren homosexual eta heterosexual kontzeptuak. Bisexual hitza biologiaren alorrean sortu zen, bi sexu zituzten organismoak (hermafroditak) edo garapen goiztiarra izateagatik “sexu” bereizi gabea zuten organismoak izendatzeko. Haatik, gure mendebaldeko kulturaren hermafrodita izatea “eboluzionatu gabeko” izaki primitibo izatea zela sinesten hasi ziren. Jabetzen al zara “primitibo” eta “eboluzionatu gabea” hitzek duten karga sozial negatiboa? Horrela, bisexualitatea, hermafroditismoa edo sexu-bereizgabetasun gisa ulertuta, giza garapenean heldutasuna iristen ez den etapa gisa zabalduta zen.

Historiako une horretan, bisexualen praktika sexualak “naturaren kontrakotzat” ulertzen zituzten, eta beraz, zigorgarriak ziren.

XIX. mendearen amaieran praktika horiek “naturalizatzen” ahalegindu ziren lehenengo homosexualitate-teoriak agertu ziren. Hala ere, gizartean gaizki ikusiak ziren, homosexualitatea gaitza zela uste zuten, eta beraz, medikuaren tratamendua beharrekoa. Gerora Kinseyk ⁷: indartuko zuen ardatza ezarri zen: homosexuala (genero bereko pertsonenganako erakarpena) / heterosexuala (kontrako generoko pertsonenganako erakarpena). Eta zer gertatzen zen ez homosexualak, ez heterosexualak ez ziren praktikekin? Oso deserosoa zen homosexuala eta ez heterosexuala ez zen jarrera bat izatea, eta bisexualok saihestu eta ezabatu egiten gintuzten.

Zalantza eta deserosotasuna sortzen genituen, monogamia ere zalantzan jartzen

genuelako. Hauxe zen kontakizun “normala”: kontrako generoko pertsonak erakartzen zaituzte, pertsona horrek osatu egiten zaitu, eta kito, orduan utzi egiten diozu beste ezer bilatzeari. Baina pertsona bat genero bateko baino gehiagoko pertsonak erakartzeak esan nahi zuen beste pertsonak ez zintuela zu osatzen, eta orduan, kolokan zegoela monogamia. Hor sortu zen bisexualok hipersexualak garen eta “ez oso monogamoak” garen estereotipoa.

XX. mendean, Freudek uste zuen guztiok garela bisexualak, baina ezinezkoa dela praktikara ekartzea “giza garapenak” bide zuzena monosexualitatea dela adierazten duelako. Horregatik lotzen ziren bisexual-bizipenak haurtzaroarekin, zuriak ez zirenekin, etab. Heldugabeak garelako estereotipoa sortu zen orduan, eta baita bisexualitatearen eta pertsona ez-zurien artean egiten den lotura; horiei giza aurrerapenaren akatsak direla esan izan zaie, eta hipersexualizatu egin dira, aurreiritzi arrazista eta kolonialistetan oinarrituta.

⁷ Alfred Kinsey AEBko gizakien sexualitatearen ikerketaren aitzindarietako bat izan zen. 40ko hamarkadaren amaieran, jokabide sexualen hiru gradu tradizionalak (heterosexuala, bisexuala eta homosexuala) gainditzen dituen eskala bat argitaratu zuen, zeinak bisexualitate maila adierazteko zazpi gradu proposatu zituen. 40ko hamarkadan, ikerketa hori polemikoa izan zen, ordura arte onartzen zen monosexualitatearekin apurtzen zuelako. 50eko hamarkadan, X izeneko gradu bat gehitu zion eskalari, asexualitatea ere gehitzeko. Ikerlan horri “Kinseyren eskala” esaten zaio.

Lehenengo bi elkarteak, batez ere AEBn sortuak, asimilazionistak ziren, hau da, *mainstream* panoraman sartu nahi zuten, panorama hegemonikoan. Horrek esan nahi du ez zeudela heteroarauaren⁸, kontra, baizik eta bertan “normalizatu” nahi zutela. Eta arauan sartu nahi ez zutenak kanpoan gelditzen ziren. Horiek nor ziren? Transak eta bisexualak. Horregatik, historikoak dira bi eta transen arteko aliantzak.

1990eko bisexualen manifestuak aurreko hamarkadatan bisexualen aktibismoak egindako lana islatzen du. Genero-binarismoarekin apurtzen duen definizio bat eman zion: “Bisexualitatea izaera osoa eta jariakorra da. Ez ezazue onartu bisexualitatea binarioa edo duala dela berez, hau da, bi alde ditugula edo gizaki oso izateko aldi berean bi generorekin jardun behar dugula. Izan ere, ez onartu bi genero bakarrik egotetik. Ez interpretatu gure jariakortasuna nahasmen, erantzukizun edo konpromiso falta moduan. Ez parekatu bisexualitatea eta promiskuitatea, desleialtasuna edo segurtasun txikiko jokabide sexualak”.

Gaur egun hetero batzuek bere fantasiatan sartzen gaituzte (hirukote bat egiteko aukera perfektua gara haien begietara), eta homosexual batzuek ez gaituzte kontatuan hartzen (politikoki disidentzian kokatzera ausartzen ez garen pertsona zalantziatik gara). Orduan? Ahalegin bikoitza egin behar dugu ikus gaitzaten, gure behar espezifikoek balioa izan dezaten, eta laburbilduz, gure izatea berak balio dezan.

⁸ Heteroaraua heterosexualitatea sexualitate “normal”, natural eta onartutako bakarra inposatzen duen erregimen sozial eta kulturala da, eta baita haren korrelatua ere: pertsona ez-heterosexualen jazarpena eta bazterkeria.

info +, Pikara Magazinen:
<https://cutt.ly/LW7es37>



% 100

B, I, S, E, X, U, A, L, A, K gara

**eta LGTB borrokaren
parte gara**

ESPERIENTZIA BISEXUALAK

Bisexualen beste ahots batzuk jaso ditugu... Ezagunak egiten al zaizkizu kontatzen dituzten bizipenak?

Hiru urte daramatzat gurasoekin hitz egin gabe. Oso kontserbadoreak izan dira beti, eta beraz, etxera neska-lagunarekin joaten nintzenean guztia normala zen, harengatik galdegiten zidaten, kontuan hartzen gintuzten, pluralean hitz egiten ziguten... Baina etxera mutil-lagunarekin joaten hasi nintzenean ez zitzaien batere gustatu, hura egongo ez balitz bezala jokatzeko zuten, ez zuten inoiz ezertarako kontuan hartu, eta noski, ez zidaten inoiz gure harremanaz galdetu. Haiei erakusten ahalegindu nintzen ni horrelakoa naizela eta onartu egin behar nindutela, baina ez da erraza izan, eta horregatik daramatzat hiru urte gurasoekin hitz egin gabe.



Fran

Beste haur bisexual askoren moduan, ni ere heterosexuala nintzela sinetsita hazi nintzen. Jakina, garai hartan sekula entzun gabea nintzen bisexual hitza, eta jendeak ez zekien hetero edo homosexual ez zen beste aukera batzuk posible zirenik. Zer gertatu zen? Ba, nik banekien ez nintzela lesbiana, berehala onartu nuen normala zela askotan gizonek erakartzea, eta emakumeenganako erakarpena sentitzen nuenean, ezin nuela aitortu.



Ana

Bisexuala ere banaiz, eta ezagutzen dituzu bisexualak, esaten dute desleialak garela eta ez garela gauza harreman egonkorak izateko. Beraz, ez didazu sinetsiko, desleial naizelako akusazio faltsua egiten didanean, bere onetik ateratzen da; zuk ulertuko zenuke, pentsatzen duzulako aski arrazoi baduela seguru ez egoteko. Eta ez zenuke sinetsiko bortxatu egin ninduela, ez al da ba egia bisexualak "beti" nahi dutela sexua?

Autore anonimoa, Pikara Magazinen⁹ irakurria


Nire adinekoentzat? Zaila baino zailagoa, gay munduak, logikoki, gazteak nahi dituelako. 22tik hasi eta 30 edo 35 urtera bitartekoak gailentzen dira. 35 urtetik aurrera kontua gainbehera doa pixka bat, oso ondo egon behar duzu, baina dagoeneko pseudoheldutzat hartzen zaituzte; 40 urterekin gazteak nahi badituzu ordaindu egin beharra dago, eta hortik gora, zeresanik ez. Nagusiagoa den jendea batez ere *voyeur* ibiltzen da. Bada "armairuan dagoen" gizon gazte bisexual mota bat, bizitza bikoitza bizi duena, bere neska-lagunarekin bizitza heterosexuala duena eta aldi berean gay bizitza bat duena leku publiko batera joaten direnean gauzez sexuan aritzera. Beharrezkoa da bisexualitatea ikusgai egitea, aniztasun sexualaz hitz egitean jendeak ez dezan soilik gayetan, lesbianetan edo transexualetan pentsatu.

Adineko bisexual bat: Desirak plazara. Gasteizko LGBTI biztanleriaren errealitateen inguruko diagnostikoa.

⁹ Anonimoa (2017) "Tres razones por las que no creerías que mi ex abusó de mí... y cómo todas apuntan a que deberías" (izenburua itzulita: "Hiru arrazoi nire ex-ak abusuak egin zizkidala ez sinesteko... eta nola hirurek adierazten duten sinetsi egin behar zenukeela") <https://cutt.ly/sgFv2lJ>

Neska batekin kalean maite-kontuetan banabil, ohikoa da mutilak tartean sartu nahi izatea besarkatuta gaudenean; maiz gizon helduek sexu-proposamenak egiten dizkigute, jai-giroan eraso gehiago gertatzen dira. Egoera horien guztien eraginez zentsura ezartzen diot nire buruari. Nire burua zentsuratzen dut, eta ez ditut afektu-keinu berberak izaten neska batekin nagoenean eta mutil batekin nagoenean.

Goiuri



Egia? Nik banekien ez nintzela heterosexuala, emakumeenganako erakarpen handia sentitzen nuelako, baina arazoa zen aldi berean gizonak ere erakartzen nindutela. Bisexualitateaz ezer ez nekienez, burutik kendu nuen neskak gustatzen zitzaizkidala eta mutilekin nituen harremanetan zentratu nintzen. Nerabezaroan beste erreferente batzuk, diskurtso bisexualak eduki izan banitu... Uste dut horrela ez nuela hainbeste deskonektatuko emakumeengan sentitzen nuen desira eta nire bizipen sexualak asegarriagoak izango zirela. Azkenean, urte ugari eman ditut nire desira "armairuratsen" eta orain jabetu naiz horrek niregan izan duen kostu emozionalaz.

Eider



MANIFESTU BISEXUALA

NEKATUTA GAUDE BESTEEK GU ANALIZATZEAZ, DEFINITZEAZ ETA ORDEZKATZEAZ, EDO ARE OKERRAGO, GU BATERE KONTUAN EZ HARTZEAZ.

FRUSTRATUTA GAUDE ESATEN DIGUTEN HORREK EDO IDENTITATE HOMOSEXUALA EDO HETEROSEXUALA AUKERATZEA ESPERO IZATEAK SORTZEN DUEN ISOLAMENDU ETA IKUSEZINTASUNAREKIN.

MONOSEXUALITATEA HOMOSEXUALAK ZAPALTZEKO ETA BISEXUALITATEAREN BALIOGARRITASUNA UKATZEKO ERABILTZEN DEN AGINDU HETEROSEXISTA DA.

BISEXUALITATEA IZAERA OSOA ETA JARIAKORRA DA. EZ EZAZUE ONARTU BISEXUALITATEA BINARIOA EDO DUALA DELA BEREZ, HAU DA, BI ALDE DITUGULA EDO GIZAKI OSO IZATEKO ALDI BEREAN BI GENEROREKIN JARDUN BEHAR DUGULA. IZAN ERE, EZ ONARTU BI GENERO BAKARRIK EGOTERIK. EZ INTERPRETATU GURE JARIAKORTASUNA NAHASMEN, ERANTZUKIZUN EDO KONPROMISO FALTA MODUAN. EZ PAREKATU BISEXUALITATEA ETA PROMISKUITATEA, DESLEIALTASUNA EDO SEGURTASUN TXIKIKO JOKABIDE SEXUALAK. HORIEK SEXU-ORIENTAZIO GUZTIAK ZEHARKATZEN DITUZTEN EZAUGARRI HUMANOAK DIRA. EZ ONARTU INOREN SEXUALITATEAZ EZER, EZTA ZEUREAZ ERE.

GEURE EXISTENTZIA, GEURE ARAZOAK, GEURE EKARPENAK, GEURE ALIANTZAK, GEURE AHOTSA ONARTZEARI UKO EGITEN DIOTENEK HASERRARAZTEN GAITUZTE. IRITSI DA BISEXUALEN AHOTSA ENTZUTEKO UNEA.

MANIFESTU BISEXUALA (1990) BISEXUAL IZATEARENESANAHIARENINGURUANKOMUNITATE BISEXUALEKO KIDEEK BERAIEK EMANDAKO DEFINIZIOAREN ADIERAZPEN HISTORIKOA, *ANYTHING THAT MOVES* LITERATURA-, KAZETARITZA-, ETA GAURKOTASUN-ALDIZKARIAN ARGITARATUA, ZEINA AEBN ARGITARATU BAITZEN 1990 ETA 2002 URTEEN ARTEAN.

MATERIAL INTERESGARRIAK

UDALAREN LOTURAK

Gasteizko Udaleko berdintasun Zerbitzua

Hitzaldia: "Politizar la carne. Estrategias de resistencia desde la disidencia corporal".

Hizlaria: Lucrecia Masson, aktibista eta ikertzaile transfeminista, sudaka eta Indiarren ondorengoa, desobediente sexuala, gizona eta *Epistemología rumiante* liburuaren idazlea.

<https://cutt.ly/QgFvPIE>

Hitzaldia: "Genero-nortasunak, sexu-aniztasuna; teoria feministezako erronkak".

Hizlaria: Cristina Garaizabal, aktibista feminista eta psikoanalisian espezializatutako psikologo klinikoa. Aniztasun sexualari eta genero-aniztasunari lotutako arazoetan aditua.

<https://cutt.ly/fgFvSP3>

Mahai-ingurua: "Sexu-aniztasuna eta genero-identitateak berdintasunerako politiketan".

Hizlariak: Cristina Garaizabal, Lucas Platero eta Inmaculada Mujika.

<https://cutt.ly/GgFvDzT>

Mahai-ingurua: "Sexu-aniztasuna eta genero-identitateak"

Hizlariak: Gerard Coll-Planas, Miquel Missé eta Sejo Carrascosa.

<https://cutt.ly/VgFvGtS>

"Sexu-aniztasuna eta genero-identitateak berdintasunerako politiketan" mintegiaren lantaldeen hausnarketak eta proposamenak.

<https://cutt.ly/ogFvH0d>

Ikusgune-LGTBIfobia-ren kontrako behatokia Gasteizen

Lesbofobiaren, transfobiaren, bifobiaren eta homofobiaren aurka etengabeko behaketarako sistema da. Haien ekintzetan nabarmentzekoak dira erasoren bat jasan duten LGTBI pertsonen laguntzea eta babesa ematea; LGTBIfobiaren aurkako argitalpenak egitea, bereziki *Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko Txostena*; hiriko agente estrategikoekin batera ekimenak egitea; eta era honetako indarkeria matxista publikoki salatzea. Ikusgune Lumagorri ZATEk (Ziheterosexismoaren Aurkako Taldea) Gasteizko Udalarekin elkarlanean egindako proiektu da.

<https://ikusgune.eus/eu>

VITORIA
GASTEIZ
green capital

homofobia lesbofobia transfobia bifobia ez hemen, ez inon



Eraso baten aurrean, ez geratu ixilik. Guregana jo

Ante una agresión, no te calles. Llámanos o escríbenos

أمام أي إعتداء، لا تصمت. إتصل بنا أو راسلنا

In the face of an aggression, don't shut up. Call or write to us

Devant une agression, ne garde pas silence. Appele ou écris-nous



www.ikusgune.eus
633 309 653

 **Ikusgune**



AKTIBISMOAK

Elisa Coll

Berdintasun Teknikaria, fasilizatzailea eta aktibista bisexuala. Liburu bat argitaratu du: *“Resistencia bisexual. Mapas para una disidencia habitable”*. Haren webgunean baliabide interesgarri ugari topatuko dituzu:

https://linktr.ee/elisacoll_

“Eta mesedez, tentuz erabil dezagun hizkuntza disidentzia afektibo/sexualaz hitz egiten dugunean, ez bisexualitateaz bakarrik, baita oraindik ikusgarritasun txikiagoa duten disidentzia batzuek ere, hala nola asexualitateaz, posible baita gure hitzek maite dugun norbait gurekin armairutik ateratzeko edo bertan goxo egoten jarraitzeko erabakia baldintzatzea. Armairuak bisexualaz josita daude, eta adiskidetasuna da haren atea txikitzeko eta inoiz ez itzultzeko eman daitekeen ostikorik handiena”.

Natàlia Wuwei Climent

Kuirfeminista, aktibista kritiko bisexual/plurisexuala. Hemen irakur ditzakezu haren artikulu batzuk:

<https://estructuradifractada.com/es/>

“Bisexualitatea patriarkatuaren, hierarkiaren eta hierarkia horiei eusteko inposatu diren egonkortasun horien aurkako tresna politiko gisa ulertzen dut. Nire sexualitatea infekzio-tresna bat da, zapalkuntza gauzatzeko bereizita egon behar duen hori nahastearen beldurraren aurka. Hautuaren, erabakitzeo aukeraren aldeko tresna ere bada.

Nire bisexualitatea aldaketaren aldeko tresna da, ezarritako ordenaren aurkakoa, ugaritasun, hibridotasunaren eta “purutasunaren” ideien aurkakoa. Gure eta besteen desirerara sentiberatasun handiagoz gerturatzeko aukera ematen digun “ez susmoen” tresna da”.

June Jordan


Unibertsitateko irakaslea, ekintzailea eta kultur sustatzailea, politika-arloko kazetaria, haurrentzako liburuen idazlea eta saiakera-idazlea.

“Bisexualitateak esan nahi du libre naizela eta emakume bat maite izatea bezain probablea dela gizon bat maitatzea, eta zer? Ez al da hori askatasunak berekin dakarrena?”

Libre bazara, ez zara aurreikusteko modukoa eta ez zara kontrolagarria. Nire iritziz, horixe da baieztapen bisexualaren esanahi erabat positibo eta politizatzailea: konplexutasun sozial/sexualaren osagai guztiek balio bera dutela azpimarratzea”.



Bloke Bisexuala, Madrilgo Harrotasun Kritikoan, 2017an. Argazkia: Elisa Coll Blanco.



Haren poesia jasotzen duen liburuaren azala, 2007an editatua.

Hemen dituzue proposamen batzuk:

Bifobia. Etnografía de la bisexualidad en el activismo LGTBI

Ignacio Elpidio Domínguez Ruiz (2017)

Liburu honek aktibista bisexualekin egindako urtebeteko ikerketa etnografikoaren (antropologiako adarra) emaitza aurkezten du. Aniztasunean Ikusgarritasun Bisexuala Agertzeko Urtea, 2016. urte osoa iraun duen ekimen aktibista testuinguru aproposa izan zen bifobia zeinen errotuta eta zeinen askotarikoa izan daitekeen aztertzeko, baita berdintasun handiagoa espero zitekeen mugimendu eta diskurtsoetan ere. Elkarrizketak eginez eta hainbat testuinguru behatuz –manifestazioak, bilerak, hitzaldiak edo eztabaidak– aktibista bisexualen ikuspegitik egindako ikerketa bat aurkeztu da, nola bizi diren eta bifobiari nola egiten dioten aurre azaltzen duena.

Salir del armario. Guía para padres de lesbianas, gays, bisexuales y transexuales

Anne Dohrenwend (2015)

Armairutik irteteko unea oso une berezia da. Gurasoek homosexualitatearen inguruan zer sentimendu dituzten birpentsatzea eskatzen du. Salir del armario liburua erabilgarria da, ideiaz eta informazioz beteta dago eta gida praktikoa da haur gay, lesbiana, bisexual eta transak dituztenentzat.

Sueño contigo, una pala y cloroformo



Patricia Castro (2019)

Alexandra Badalonako –Bartzelonatik oso gertu dagoen hiria– milenial gazte bat da, eta bizitza monotonoa egiten du altzari baten gisa tratatzen duen mutil-lagun bati lotuta. Feminista eta komunista da, eta hainbat mugimendutan dabil. Egun batean Julia ezagutuko du, bera bezalaxe errutinazko harreman batean dagoen neska bat. Hortik abiatuta, maitasuna, desamodioa, frustrazioa eta mina biltzen dituen istorio bat hasiko dute, zeinak hiru pertsonen arteko maitasun-kontua izango baitu atzean. Alexandrak harreman tamalgarri eta mingarri bati helduko dio, eta berak sinesten dituen gauza ugari jarriko ditu proban, hala nola teoria feminista, harreman irekiak, polimaitasuna, bisexualitatea eta maitasun erromantikoa.

Leah a destiempo

Becky Albertalli (2018)


Bateria jotzeaz ari garenean, Leah Burkek ondo eraman ohi du erritmoa; denbora da bere espezialitatea. Baina bizitzan gauzak denboraz kanpo gertatzen dira. Leah amabakar baten alaba bakarra da, anomalia bat koadrilan, eta haren bizitza da, dudarik gabe, pribilejiorik gutxien duena. Maite du marraztea, baina beti kikilduta sentitzen da bere sorkuntza-lanak erakusteko. Bere amak bisexuala dela badakien arren, berak oraindik ez du lagunei kontatzeko ausardiarik izan, ezta Simoni, modu irekian gay den lagunari, kontatzekoa ere. Beraz, Leahk egiaz ez daki zer egin bere koadrila solidoa ezustean arrakalatzan hasten denean. Graduazioko dantzaldia eta unibertsitatea begi-bistan dituela, gero eta tentsio handiagoa sentitzen du. Zail egiten zaio nota egokia topatzea inguruko jendeak gatazkak dituenean, bereziki, jabetzen denean beharbada inoiz pentsatu ez duen norbait maite duela.



Duffy

Dan Kavanagh (2016)

Duffy kasu zailak konpontzen eta katramila harrigarrietan sartzen apartekoa den detektibe bisexual baten istorioa da. *Hardboiled* eleberria, prosa arin eta zehatzekoa, Dan Kavanaghen debut literarioa izan zen, idazle britainiar entzutetsu baten alter egoa. Tramak Duffy aurkezten digu, polizia ohia eta bisexuala, hainbat bidegabekeria ekarri zion iragan zitala ahaztu eta detektibe bihurtu dena. Baina hildako katuaren kasua Londresko Soho auzo txiroetara itzuli du, edozein motatako liskarzaleek edozein mugimendu kontrolatzen duten tokira.



Las intermitencias del deseo. Sobre la verdad, la bisexualidad y el deseo

Michael Amherst (2019)

Saiakera honek –2019an Stonewall Book Award irabazi zuen– zalantza jartzen du hetero eta homosexualitate kategorien arteko sexualitatearen bereizketa binarioa, eta desiraren genealogia konplexuaren esplorazio burutsua eskaintzen dio queer ikuspegitik.

Amherstek zalantza jartzen du sexualitatea kategoriatan banatu litekeenik, eta bisexualitatearen izaera iheskoraren inguruko meditazio bat proposatzen du “ohertzen zeren pertsonaren pareko bihurtzen zara” botere-begirada sailkatzen eta esentzializatzen saiatzen den horri uko egiten dion desiraren adierazpena gisa. Kontrapuntu moduan, aipamen egiten zaio iraganeko maitasunen oroitzapenari –horien generoa ez da esaten–, eta hala, lekukotza pertsonala hausnarketa politiko guztiz sakonarekin lotzen da.



BIFOBIAREN INGURUKO IKERKETAK

Movement Advancement Project (MAP) (2016). “Invisible Majority: The Disparities Facing Bisexual People and How to Remedy Them”, Denver, EEUU.

<https://cutt.ly/LgFW2wW>

Barker, M.; Richards, C.; Jones, R.; Bowes-Catton, H; Plowman, T.; Yockney, J.; Morgan, M. (2012) “The Bisexuality Report”, Centre for Citizenship, Identity and Governance, The Open University, Erresuma Btaua. ISBN 978-1-78007-414-6

<https://cutt.ly/MgFW22T>

KOMIKIAK

Tarteka “Hay una lesbiana en mi sopa” webgunean agertzen diren Chris G. Represaren binetak gomendatzen dizkizugu.

<https://cutt.ly/XgFW3Tv>

Eta gozatu bere sorkuntzez @CGRepresa Twitter kanalean eta @ChrisGRepresa Instagram kanalean.

¡EXISTEN! Y ESTÁN ENTRE NOSOTROS!



Hoy en Fenómenos Paranormales
PERSONAS A LAS QUE LES ATRAE

MÁS DE 1 GÉNERO

Muchos creen en ellos, pero
muy pocos los pueden ver porque

SON INVISIBLES

La sexualidad humana no se basa en dos polos opuestos
e intocables, sino más bien en un **ESPECTRO**.



El monosexismo es la creencia de que esos grados intermedios no existen o no tienen valor.



Factores que influyen en la invisibilidad

Ausencia de estudios y políticas específicas

"Estos datos son de EEUU porque no hay estudios sobre el tema en España." "Claro, la "B" en España es de Bailmoras."

y de protocolos de salud, ginecológica y mental

"Tengo dudas... ¿cómo que soy... bisexual?" "¡Gracias, ya no tengo dudas! ¿verdad...?" "Lo que pasa es que eres insegura."

Poco peso dentro del activismo LGBT

"Solo he dicho 'claro que hacemos actividades de la invisibilidad' ¿por qué lloras?" "¡Profe, mis compañeros están diciendo por ahí que soy lesbiana!" "Tienes que estar a gusto con quien eres." "¡Pero si me gustan los chicos!" "Eh... ¿que no pasa nada si eres lesbiana?" "¡Que no lo soy!" "¡Uf...!"

Deficiencias en el sistema educativo

"¡Profe, mis compañeros están diciendo por ahí que soy lesbiana!" "Tienes que estar a gusto con quien eres." "¡Pero si me gustan los chicos!" "Eh... ¿que no pasa nada si eres lesbiana?" "¡Que no lo soy!" "¡Uf...!"

Representación cultural

"En mi nueva película, una mujer bisexual." "No, nada de eso, quiero que sea aprotica." "¡Protección!" "¡Pasa que sea la visión tradicional sin diversidad!" "Eso mismo." "¡Ok. Una mujer hetero y su marido..." "¡... Pero que haya un trío con la vecina. Eso me pone!"

Personajes históricos

"Freddie Mercury era gay pero ¡estuvo casado con una mujer!" "¡¡ MADRE MIA, QUE MISTERIO, COMO PUDO SER ESO!! ¡¡ QUE ALGUIEN LLAME A SHERLOCK HOLMES!"

Medios de comunicación

¡y recordad, hacerlos de periodismo! ¡que hagan clic en el título es lo más importante!

¿Cómo tratar la bisexualidad en los medios?

1. Con morbo
2. Centrada en las celebrities
3. Fue algo
 - sexual
 - del pasado
 - confuso
 - "no quiero definirme"
 - causa celos

Al final, la invisibilidad llega también a la vida cotidiana...

¿CÓMO TE HACES INVISIBLE?



¿Y cuáles son las consecuencias de invisibilizar a un colectivo?
Escoge tu opción favorita.

NO → a. ¿Espiar a tus anchas?

igual ya lo haces

Se ha echado no v'io ¿eh? Vaya, vaya... UNFOLLOW

¿Qué haces?

Nada. No me ves, soy invisible

TAMPOCO → b. ¿Buscarse de tus obligaciones?

Te toca bajar la basura

No puedes verme

No compraste esa bandera para esto

¡OH, VAYA!

c. ¿Sentirte invalidada y tener problemas de autoestima?

Habría que esperar a la semana que viene

Pero seguro que está no es... je je...

y al final, esto sí da un poquito de miedo

The Bisexual

Hona hemen telesailaren sinopsia:

Sesiree Akhavan Sundance Jaialdiko irabazleak bisexualitatearen inguruko telesail gordin, dibertigarri eta konplexugabe hau idatzi eta zuzendu du, eta protagonista rola ere berak egiten du. Normalean kontatzen ez den istorio bat kontatzen du, eta *spoiler* handirik egin gabe, Leilaren bizitza kontatzen duen telesaila dela esan dezakegu. Betidanik neska-laguna izan duen horrekin harremana utzi eta Gaberekin hasi da pisua partekatzen, hogeita hamar urte inguruko neurotiko bat, hasten ari den idazlea eta inoiz emakume batekin bizi izan ez dena. Leila gizonekin oheratzen hasten da, bere bisexualitatea defendatzen du bikotekide ohiaren eta lagun lesbianen aurrean, eta bizitza berri honetan babesaren ematen dion aliatua aurkitzen du Gaberengan. The Bisexual telesailak batzuekin eta besteekin irtetearen desberdintasunak erakusten ditu, hori egiten hasi berria den pertsona baten ikuspegitik, eta bitartean, norbaitekin egoteko desirak eta behar duzun bizitzak pertsona horrengandik urrundu zaitzaikeelako ziurtasunak eragiten dituen kontraesanak aztertzen ditu.



Quien Pudiera

Rosario hirian egindako Quien Pudiera web-telesail feminista lesbikoa eta bisexuala, guztiz emakumez eta disidente sexualez eta genero-disidentez osatutako lan-talde batek egina da. Rosarioko ikus-entzunezko Hipólita Filmsek egindako telesaila, eduki feministen eta LGBTI edukien ekoizpena sustatzen duena.

Hona hemen telesailaren sinopsia:

Memé eta Mariana Rosarion bizi diren bi adiskide dira; bata bisexuala da eta beste lesbiana. Beren adineko ohiko gatazkak dituzte, adibidez, unibertsitateko ikasketak amaitzeko zailtasunak izatea, ikasi zuten horrekin lotutako lanposturik ez topatzea edo desamodioak, baina horrez gain, Sofia lagunarekin batera, bizi diren lekuko LGBTI giroaren ezaugarriak borrokatzen dituzte. Memé urte batzuetan mutil-lagun izan duen Martinengandik bereizten denean, larriagoa bihurtzen da neskak ezagutzeko lekurik ez

izatearen arazo historikoa, Mystika, hiriko LGBTI bolitxe bakarra, ixten dutenean. Lagunek jendea ezagutzeko eta ondo pasatzeko erabiltzen duten espazio horren faltan, elkarren arteko harremanak izateko modu berri eta ezezagunak sortzen hasten dira, beti feminismo sutsu batek bultzatuta. Festa lesbiko perfektua bilatu bitartean, hiru lagunek mota guztietako gertakariak bizi dituzte: abortu batean laguntzen diote bati, familien kontra borrokatzen dira, emakumezkoen futbolaren giroa ezagutzen dute eta LGBTI harrotasuna ospatzen dute.



INSTAGRAM

Bi History @bihistory

Bisexualitatearen historiaz eta bisexualitatearen aktibisten rola LGTBI historian izan dituen mugariez diharduen ingelesezko kanala.

Bisexuales Feministas @bi_fem

Since 2012, activando desde la B *Bisexualidades feministas. Contrarrelatos desde una disidencia situada.* liburua idatzi dute.



Bisexuales y Combativas @bisexualesycombativas

Madrilgo Harrotasun Kritikoko bisexualen blokea. Bisexual feministak, antikapitalistak eta antiarrazistak.

Nire heterosexualitatea, hori bai, fase bat izan zen.



Taberna Bi @tabernabi

Aktibismo bisexual asanbleario kolektiboa.



Bisexualitatea. Ez da fase bat, geratzeko gaude hemen

Argitalpena: Gasteizko Udala, Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saila, Berdintasunerako Zerbitzua.

 945 161 345

 igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

 [Berdintasuna.Igualdad](https://www.facebook.com/Berdintasuna.Igualdad)

 [@VG_berdintasuna](https://twitter.com/VG_berdintasuna)

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

www.vitoria-gasteiz.org/desirakplazara

Erredakzio-taldea: Asociación Histeria

Diseinua, ilustrazioak eta maketazioa: Asociación Histeria

Irudiak: Al Borde Films

Itzulpena: Saretik

Inprimaketa: Héctor Soluciones Gráficas

L.G.: VI 739-2021

2021

BI SEXUA LITATEA

Ez da fase bat,
geratzeko gaude hemen

